

GARDENTASUNERAKO MEMORIA

Txostena.

Nafar gizartea murgildurik dago gertatzen ari diren aldaketei egokitzeko prozesu batean. Hala, merkatuen globalizazioak, informazioaren gizartearen etengabeko aurrerapenak eta lanbide kualifikazioko eskakizun handiagoek markatutako panorama berri baten aurrean gaude.

Testuinguru honetan, Europar Batasunak enplegurako proposatzen dituen estrategia koordinatuek ahalegin berezia egiten dute mugitzeko eta askatasunez zirkulatzeko gai izanen den biztanleria aktibo kualifikatua lortzeko. Eta horren garrantzia berariaz azpimarratzen da Europar Batasunaren Tratatuan.

Horrenbestez, beharrezkoa da Lanbide Heziketaren araudi esparrua berritzea, lanbide kualifikazioen eta lan merkatuko beharren artean lotu nahi den lotura une oro bermatzearren.

Foru dekreturako proiektu honek, zeinaren bitartez Nafarroako Foru Komunitatean Ikuskizunen eta ikus-entzunezkoen errealizazioko goi mailako teknikari tituluaren curriculuma ezartzen den, gizarte eta araudi esparru berri honi erantzun nahi dio eta, hain zuzen ere Nafarroako ikasleen eta merkatuaren beharrei egokitutako curriculuma diseinatuz gauzatzen du asmo hori, talde lanarekin, erabakiak hartzeko eta lanak gauzatzeko autonomia eta ekimenarekin eta jendaurreko arretarekin zerikusia duten eta lanbidea garatzeko beharrezkoak diren gaitasun pertsonal eta sozialei arreta berezia eginez.

Halaber, foru dekreturako proiektu honek prestakuntza unitateka antolatzen du. Antolaketa hau erreferente modura erabiltzen ahalko da lanbide profila osatu edo eguneratu nahi duten langileen prestakuntzarako curriculum hauetan zehazten den prestakuntzaren subjektu diren profesionalek diharduten jarduera eremuetan.

Entzunaldia eta parte-hartzea.

Gardentasunari eta Gobernu Irekiari buruzko 11/2012 Foru Legeak 13. artikuluan dio Administrazio Publikoak, bere eskumenen eremuan, oro har, eskuragarri jarri behar diela herritarrei informazio aktiboko zerrenda argia, objektiboa, eguneratua eta erraz eskuratzeko modukoa. Informazio hori, gehienbat, izaera orokorrekoa da eta Nafarroako Gobernuaren Atarian aurki daiteke. Aipaturiko 13. artikuluko i) idatz-zatian aipatzen da nahitaez argitaratu behar dela unean-unean abian diren arauak prestatzeko prozeduren zerrenda, adieraziz horien xedea eta tramitazioaren egoera. Agindu hori betez, proposatzen den foru dekreturako proiektua ondoko webgunean argitaratu da:

<http://gobiernoabierto.navarra.es/eu/partaidetza>

Proposatzen den foru dekretua jendaurrean jarriko da hamabost egunez. Alegazioetarako gaitu diren bideak behar bezala iragarriko dira aipaturiko webgunean eta herritarrek beren ohar eta iritziak emateko aukera izanen dute.

Jendaurreko aldiari jasotako alegazioak aintzat hartuko dira erabakiak hartzeko orduan. Behin herritarrek adierazitako oharra eta iritziak aztertu ondoren, hartutako erabakien berri emanen da eta jakinaraziko da jasotako iradokizun eta gomendioak onartu

diren edo zergatik baztertu diren, Nafarroako Gobernuaren Interneteko Atarian argitaratuko den azken txosten baten bidez.

Gainera, proposaturiko foru dekretua Nafarroako Eskola Kontseiluaren txostenaren mende geldituko da. Organo horretan ordezkaturik daude herritarrak, hezkuntzaren esparruan garrantzi handiena duten kolektiboetako erakundeen, antolamenduen eta elkarten bidez.

Halaber, Nafarroako Lanbide Heziketaren Kontseiluaren aurrean aurkeztuko da, Nafarroako Lanbide Heziketaren Kontseilua sortzen duen uztailaren 3ko 247/2000 Foru Dekretuko 2.e) artikuluan ezarritakoa betez. Artikulu horren arabera, aipaturiko erakundeari dagokio, besteak beste, lanbide heziketa arautuko titulazioetako curriculumen diseinuari buruzko txostenak egitea, Nafarroako Foru Komunitateko eskumenen esparruan, eta lanbide heziketaren maila eta espezializazioei dagozkien titulazio berriak proposatzea.

Iruñean, 2017ko maiatzaren 15ean

Lanbide Heziketaren Zerbitzuko zuzendaria

Stua.: Esther Monterrubio Ariznabarreta